6. Hilabeteko Iruzkina
2008ko Uztaila-Abuztua

Nota Mensual nº 6
Julio-Agosto de 2008

# Gipuzkoako enpresak eta ekonomia Europar Batasuneko ekonomiaren geldialdiaren aurrean

## • Europako ekonomiaren hazkundea gelditu egin da bigarren hiruhilekoan

Eurostatek abuztuaren erdialdean argitaratu zituen datuetan ikus daitekeen moduan, Europar Batasuneko ekonomiak uzkurdura jasan zuen urteko bigarren hiruhilekoan, hazkunde ekonomikoari dagokionez. Uzkurdura hori % -0,1ekoa izan zen.

Europar Batasunak hamabost urtez etenik gabeko hedapen ekonomikoa izan ostean, urtean % 2,5 inguruko batez besteko hazkundearekin, euroguneko herrialde nagusiak, Alemania, Frantzia eta Italia esate baterako, jarduera ekonomikoa gutxitzeko prozesuan barneratu dira eta hurrengo hiruhilekootan luzatzeko arriskua dago.

Higiezinen sektorearen krisiak, lehengaien igoerak eta kontsumitzaileen konfiantzan izan den krisiak modu erabakigarrian eragin dute dezelerazio ekonomiko handian eraikuntzaren inbertsioak jasan duen jaitsiera, bankuetako kredituetan izandako gutxitzea eta atzerriko merkataritzak bizi duen defizita direla eta.

Gipuzkoako ekonomiaren kasuan, eskuragarri dauden azken datuek, lehen hiruhilekoari dagozkionek, hiruhilekoen baitako datuei dagokienez, jarduera ekonomikoa mantsotu egin dela erakusten dute. Era berean, Europako ziklo ekonomikora nolabaiteko egokitzapena gertatu dela ikus dezakegu; izan ere, ez dugu ahaztu behar Europa dela Gipuzkoako enpresen merkatu nagusia.

Urtetik urterako aldaketa tasei dagokienez, Gipuzkoako ekonomiak urteko lehen hiruhilekoan Europako herrialdeetakoa baino hazkunde altuagoa izan du. Diferentzial hori Gipuzkoako jarduera ekonomikoak aurreko urteko erdiko hiruhilekoetan izan zuen erritmoa bizkortu izanaren ondorioa da.

Gipuzkoako ekonomiak etengabeko hazkunde indartsua izan du azken hogeita bost urteetan; batez besteko aldaketa tasa % 3,5ekoa izan da eta aurreko mendeko azken hamarkadako lehen urteetan soilik mantsotu zen erritmo hori.

# Las empresas y la economía guipuzcoana ante el estancamiento de la economía de la Unión Europea

## • La economía europea frena su crecimiento en el segundo trimestre

Los datos publicados por Eurostat a mediados del mes de agosto revelan que la economía de la Unión Europea ha registrado una contracción en su crecimiento económico en el segundo trimestre del año, estimada en el -0,1%.

Tras quince años de expansión económica ininterrumpida en la Unión Europa, con un crecimiento medio anual próximo al 2,5%, los principales países del área del euro, como Alemania, Francia e Italia se encuentran inmersos en una reducción de su actividad económica, que amenaza con prolongarse los próximos trimestres.

La crisis del sector inmobiliario, el alza de las materias primas y la crisis en la confianza de los consumidores están incidiendo decisivamente en la intensa desaceleración económica, a través de la caída de la inversión en la construcción, la reducción del crédito bancario y el déficit en el comercio con el exterior.

En la economía guipuzcoana, los últimos datos disponibles, correspondientes al primer trimestre reflejan asimismo, en términos intertrimestrales, una ralentización de la actividad económica, reflejando un acoplamiento al ciclo económico europeo, principal mercado de las empresas guipuzcoanas.

En términos de tasas de variación interanual la economía guipuzcoana mantiene en el primer trimestre del año un crecimiento superior a la de los países europeos. Este diferencial se deriva de la aceleración del ritmo de la actividad económica guipuzcoana en los trimestres centrales del año precedente.

La economía guipuzcoana ha registrado en los últimos veinticinco años una larga etapa de vigoroso y continuo crecimiento, con una tasa media de variación del 3,5%, únicamente ralentizada en los primeros años de la última década del siglo precedente.

gipuzkoako go ogasuna

**Europar Batasuneko ekonomia 2008an**
***La economía de la Unión Europea en 2008***

| | Urte arteko aldakuntza tasa/ *Tasa interanual* | | | Aurreko hilabetearekiko aldakuntza tasa/ *Tasa intertrimestral* | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 2007 | | 2008 | |
| | 2006 | 2007 | 2008 | III | IV | I | II |
| EB-27/*UE-27* | 3,2 | 2,9 | 2,0(I-II) | 0,7 | 0,5 | 0,7 | -0,1 |
| Alemania/*Alemania* | 3,1 | 2,6 | 2,2(I-II) | 0,6 | 0,3 | 1,3 | -0,5 |
| Erresuma Batua/ *Reino Unido* | 2,9 | 3,1 | 2,0(I-II) | 0,6 | 0,6 | 0,3 | 0,2 |
| Frantzia/*Francia* | 2,4 | 2,1 | 1,6(I-II) | 0,7 | 0,4 | 0,4 | -0,3 |
| Italia/*Italia* | 1,9 | 1,4 | 0,2(I-II) | 0,2 | -0,4 | 0,5 | -0,3 |
| Espainia/ *España* | 3,9 | 3,8 | 2,3(I-II) | 0,7 | 0,8 | 0,3 | 0,1 |
| Gipuzkoa/Gipuzkoa | 4,6 | 4,1 | 3,1 (I) | 1,3 | 0,1 | 0,4 | - |

Iturria: Eurostat, Eustat eta bertan eginda. *Fuente: Eurostat, Eustat y elaboración propia*

- **Europako ekonomiak munduko produkzioaren bostena sortzen du**

Europar Batasunean mundu osoko biztanleriaren % 9 baino ez da bizi; hau da, biztanle gehien duten herrialdeetakoa baino nabarmen txikiagoa den ekarpena: Txina eta India, esate baterako.

Dena den, ekonomiari dagokionez, ekarpena nabarmen altuagoa da; izan ere, produkzioa kontuan hartuz gero, ekarpen demografikoa bikoiztu egiten da eta laukoiztu, aldiz, kanpoko merkataritzari dagokionean.

Batasuneko BPG (erosketa ahalmenaren parekotasunari dagokionez) mundu osokoaren bostena da; hau da, Estatu Batuetako ehunekoaren antzekoa eta Txinakoa baino altuagoa.

Ekarpena, gainera, handitu egiten da (% 38koa ia) ondasunen eta zerbitzuen munduko esportazioetan duen partaidetza aztertuz gero. Ratio horrek lotura zuzena du Europar Batasuneko kide diren estatuetako ekonomien neurri txikiarekin.

Gipuzkoako enpresen eta ekonomiaren ikuspegitik, Europako ekonomiak duen intzidentzia munduan duen gailentasuna baino nabarmen altuagoa da.

Espainiako barne merkatuko eta 1986. urtetik Europar Batasuneko kide izateak eremu horiekin lehentasunezko lotura ekonomikoak osatu ditu pixkanaka. Euskadiko industriaren azterketa oinarri gisa hartuta, horren erakusgarria da datu hau: produkzio osoaren % 54 atzerrira

- **La economía europea aporta la quinta parte de la producción mundial**

En la Unión Europea apenas reside el 9% de la población mundial, contribución apreciablemente más reducida a la de los países más poblados, como China e India.

No obstante, en términos económicos la aportación es sensiblemente mayor, duplicándose la contribución demográfica si se considera la producción y cuadriplicándose en comercio exterior.

Así, el PIB (en paridad de poder de compra) de la Unión representa la quinta parte del mundial, porcentaje similar al de Estados Unidos y superior al de China.

Y la contribución aumenta hasta acercarse al 38% si se examina su participación en las exportaciones mundiales de bienes y servicios, ratio asociado al reducido tamaño de las economías de los Estados miembro de la Unión Europea.

Desde la perspectiva de la economía y de las empresas guipuzcoanas la incidencia de la economía europea es sensiblemente mayor a su relevancia en el mundo.

La pertenencia al mercado interior español y desde 1986 al de la Unión Europea, ha configurado paulatinamente unas relaciones económicas preferentes con dichas áreas. Como indicador de ello y, centrando el análisis en la industria vasca, el 54% de su producción se destinaba al exterior (en 2005, datos de Eustat).

bideratzen zen (2005. urtean, Eustaten datuen arabera).

Produkzio osoaren % 25ek Estatuko gainerako lurraldeak zituen jomuga; % 20k, aldiz, Europar Batasuna zuen xede eta gainerako % 9k munduko gainerako tokiak.

Así, el 25% del total de la producción tenía como destino el resto del Estado, el 20% el resto de la Unión Europea y el 9% restante el resto del mundo.

**Europar Batasuna munduan**
***La Unión Europea en el mundo***

| | BPG*/*PIB** | Esportazioak: ondasunak eta zerbitzuak/ *Exportaciones de bienes y servicios* | Populazioa/ *Población* |
|---|---|---|---|
| EB-27/*UE-27* | 20,3 | 37,6 | 8,7 |
| - Alemania/*Alemania* | 3,9 | 8,9 | 1,3 |
| - Erresuma Batua/ *Reino Unido* | 3,2 | 4,3 | 0,9 |
| - Frantzia/*Francia* | 2,9 | 4,1 | 1,0 |
| - Italia/*Italia* | 2,7 | 3,5 | 0,9 |
| - Espainia/ *España* | 1,8 | 2,3 | 0,7 |
| - Besteak/*Resto de Estados* | 5,8 | 14,5 | 3,9 |
| Estatu Batuak/*Estados Unidos* | 19,7 | 9,8 | 4,7 |
| Txina/*China* | 15,1 | 7,2 | 20,5 |
| India/*India* | 6,3 | 1,3 | 17,4 |
| Japonia/*Japón* | 6,1 | 5,0 | 2,0 |
| Errusia/*Rusia* | 2,6 | 2,3 | 2,2 |
| Brasil/*Brasil* | 2,6 | 1,1 | 2,9 |
| Besteak/*Resto de países* | 27,0 | 35,7 | 41,6 |

* Erosteko ahalmenaren parekotasuna oinarri hartuta. ** Con base en la paridad de poder adquisitivo*
Iturria: FMI (2006ko datuak) eta bertan eginda. *Fuente: FMI (datos de 2006) y elaboración propia.*

## • Gipuzkoako industriak Europako herrialde nagusietako eskaeraren mendekotasun indize altua du

Lehen aipatu dugun moduan, Gipuzkoako ekonomiak, bere produkzio espezializazioa eta neurri txikia direla eta, atzerriko irekiera maila altua du. Esportazioek (2007ko datuak) % 29ko partaidetza dute BPGean; gainera, azken hamarkadan gero eta ekarpen handiagoa izan du adierazle horrek, nahiz eta Gipuzkoako ekonomiak produkzio arloko dinamismo handiko testuinguru orokorra izan.

Industria ondasun metalikoak dira Gipuzkoako esportazioen oinarria; horien artean, makinen, garraio materialaren eta metalen eta haien manufakturen muga-zergen atalak aipatu behar dira; izan ere, aurtengo lehen hiruhilekoan, atzerriko salmenten % 78 ziren.

Gipuzkoako ekonomiaren atzerriko mendekotasun altua Europar Batasuneko kide diren herrialdeetan biltzen da. 2008ko lehen hilabeteetan, esate baterako, atzerrira egindako salmenten ia % 70 bideratu ziren Batasuneko

## • La industria guipuzcoana presenta una alta dependencia de la demanda de los principales países europeos

Tal como se ha mencionado, la economía guipuzcoana, como consecuencia de su especialización productiva, además de su reducido tamaño, presenta un elevado grado de apertura exterior. Las exportaciones alcanzan (datos de 2007) una participación del 29% en el PIB, con una aportación creciente en la última década, aún en el contexto general de dinamismo productivo de la economía guipuzcoana.

Las exportaciones guipuzcoanas se concentran en bienes industriales metálicos, concretamente en las secciones arancelarias de maquinaria, material de transporte y metales y sus manufacturas, que representan el 78% de las ventas exteriores en el primer trimestre del presente año.

La alta dependencia exterior de la economía guipuzcoana se concentra en los países miembros de la Unión Europea. Así, en los primeros meses de 2008 casi el 70% de las ventas al ex-

kide diren 27 herrialdeetara. Partaidetza hori egonkorra izan da mende honetako urte guztietan.

Ikus dezakegun moduan, Gipuzkoako industria produkzioko atzerriko merkatu nagusiak hauek dira: Frantzia, Alemania eta Italia. Hiru herrialde horietara egiten ditu Gipuzkoak esportazio guztien % 42; Europako eta munduko gainerako herrialdeak tasa horretatik urrun daudela esan dezakegu.

Lehen ikusi dugun moduan, uzkurdura ekonomikoaren intzidentzia gero eta bistakoagoa da hiru herrialde horietan. Hori ikusita, Gipuzkoako enpresek bilakaera horretara egokitu beharko dutela eta hazten ari diren munduko beste ekonomia batzuetako hazkunde erritmora moldatu (eta horri garrantzia eman) beharko direla aurrez ikus dezakegu; gainera, toki haietako presentzia handitu beharko dute.

tranjero se destinan a los 27 Estados Miembro de la Unión. Esta participación se ha mantenido estable a lo largo de todos los años del presente siglo.

Y como puede observarse los principales mercados exteriores de la producción industrial guipuzcoana son Francia, Alemania e Italia. Estos tres Estados representan el 42% de las exportaciones, a sensible distancia del resto de países europeos y del mundo.

La incidencia de la contracción económica empieza a ser palpable en estos tres países, tal como se ha reflejado anteriormente, a partir de lo cual puede preverse la necesidad de adaptación de las empresas guipuzcoanas a dicha evolución y de acentuar y acoplarse al ritmo de crecimiento de las economías mundiales emergentes incrementando la presencia en las mismas.

**Europar Batasuna eta Gipuzkoako esportazioak/**
***La Unión Europea y las exportaciones de Gipuzkoa***

| | **Gipuzkoako esportazioak (2008ko urtarril-apirila, %)** ***Exportaciones de Gipuzkoa (%, enero-abril 2008)*** | **BPG/*PIB*** | **Barneratze Indizea/** ***Indicador de Penetración*** |
|---|---|---|---|
| EB-27/*UE-27* | 69,3 | 20,3 | 3,4 |
| - Alemania/*Alemania* | 13,6 | 3,9 | 3,5 |
| - Erresuma Batua/ *Reino Unido* | 6,5 | 3,2 | 2,0 |
| - Frantzia/*Francia* | 20,1 | 2,9 | 6,9 |
| - Italia/*Italia* | 8,2 | 2,7 | 3,0 |
| - Espainia/ *España* | 20,9 | 5,8 | 3,6 |
| Besteak/*Resto de Estados* | 2,7 | 19,7 | 0,5 |
| Estatu Batuak/*Estados Unidos* | 3,2 | 15,1 | 0,2 |
| Txina/*China* | 1,2 | 6,3 | 0,1 |
| India/*India* | 0,1 | 6,1 | 0,0 |
| Japonia/*Japón* | 1,6 | 2,6 | 0,3 |
| Errusia/*Rusia* | 2,2 | 2,6 | 0,8 |
| Brasil/*Brasil* | 19,7 | 27,0 | 0,7 |
| Besteak/*Resto de países* | 100,0 | 100,0 | 1,0 |

Barneratze indizea: gipuzkoar esportazioak eta munduko BPG-ri ekarpena arteko ratioa.
Iturria: Industria eta Merkataritza Ministerio, Eustat, NMF eta bertan eginda.

*Indicador de penetración: ratio entre exportaciones guipuzcoanas y aportación al PIB mundial (en %).*
*Fuente: Ministerio de Industria y Comercio, Eustat, FMI y elaboración propia*

- **Gipuzkoako esportazioak hurrengo urtetarako hazteko aurreikuspen baxuagoak dituzten herrialdeetara zuzenduta daude**

Europar Batasuneko ekonomia dezelerazio ekonomikoko prozesuan dago murgilduta; hazteko aurreikuspenak neurritsuak dira eta beheranzko joerarekin berraztertzen dituzte ondoz ondo hurrengo urterako.

- **Las exportaciones guipuzcoanas están orientadas a los países con menores previsiones de crecimiento en los próximos años**

La economía de la Unión Europea está inmersa en un proceso de desaceleración económica, con previsiones de crecimiento moderadas y sucesivamente revisadas a la baja para el próximo año.

Europako ekonomiaren eta ekonomiarik aurreratuenen multzoaren dinamismo erlatibo txikiagoa (hazten ari diren herrialdeetako ekonomiekin alderatuta), azken urteotan etengabea izan dena, zabaldu egingo da epe laburrera eta ertainera nazioarteko erakunde ekonomikoek egin dituzten etorkizuneko aurreikuspenen arabera.

Hori dela eta, herrialde horietako ahalmen ekonomikoa da Gipuzkoako ekonomia eta enpresa arloko etorkizunerako aukera estrategiko nagusia. Hazten ari diren herrialdeen artean, nabarmendu beharrekoak dira beren neurri ekonomikoa dela eta Txina, India, Errusia eta Brasil (egun mundu osoko BPGren % 27 du) eta Gipuzkoako enpresek han duten barneratze indizea txikia (Gipuzkoako esportazioen % 8).

El menor dinamismo relativo de la economía europea y del conjunto de economías avanzadas con relación a las economías de los países emergentes, que ha sido constante durante los últimos años, se prevé en las proyecciones de los organismos económicos internacionales que se amplifique a corto y medio plazo.

Así la pujanza económica de estos países, entre los que destacan por su tamaño económico China, India, Rusia y Brasil (27% del PIB mundial en la actualidad) y en los que la penetración de las empresas guipuzcoanas es reducida (8% de las exportaciones guipuzcoanas) constituye una oportunidad estratégica central para el futuro económico y empresarial guipuzcoano.

**Hazkunde ekonomikoa eta atzerriko merkatuak**
***Crecimiento económico y mercados exteriores***

| | Gipuzkoako esportazioak (2008 urt.-apir., %) *Exportaciones de Gipuzkoa (%, ene-abr 2008)* | *PIB* 2000-07 (batazbestekoa) *(media)* | *PIB 2008* | *PIB 2009* |
|---|---|---|---|---|
| EB-27/*UE-27* | 69,3 | 2,1 | 1,7 | 1,2 |
| - Alemania/*Alemania* | 13,6 | 1,4 | 2,0 | 1,0 |
| - Erresuma Batua/ *Reino Unido* | 6,5 | 2,8 | 1,8 | 1,7 |
| - Frantzia/*Francia* | 20,1 | 2,0 | 1,6 | 1,4 |
| - Italia/*Italia* | 8,2 | 1,4 | 0,5 | 0,5 |
| Estatu Batuak/*Estados Unidos* | 2,7 | 2,6 | 1,3 | 0,8 |
| Txina/*China* | 3,2 | 9,9 | 9,7 | 9,8 |
| India/*India* | 1,2 | 7,1 | 8,0 | 8,0 |
| Japonia/*Japón* | 0,1 | 1,7 | 1,5 | 1,5 |
| Errusia/*Rusia* | 1,6 | 7,0 | 7,7 | 7,3 |
| Brasil/*Brasil* | 2,2 | 3,4 | 4,9 | 4,0 |
| Mundua/*Mundo* | 100,0 | 4,1 | 4,1 | 3,9 |
| - Ekonomia aurreratuak<br>*- Economías avanzadas* | 77,1 | 2,5 | 1,7 | 1,4 |
| - Garatzeko bidean dauden herrialdeak<br>*- Economías emergentes y en desarrollo* | 22,9 | 6,4 | 6,7 | 6,6 |

2008 eta 2009 urteko BPGren proiektuak, NMF-k uztailean egindakoak dira eta EB-27-ei dagokiena, euro-zonari.
Iturria: Eustat, NMF eta bertan eginda

Las proyecciones del PIB para 2008 y 2009 corresponden a las realizadas en julio por el FMI. Las de la UE-27 se refieren al área del euro
Fuente: Eustat, FMI y elaboración propia.

## • Gipuzkoako enpresak Europako ekonomiaren uzkurduraren eta geldialdiaren aurrean

Aurreko ataletan, hurrengo hiruhilabeteetarako aurreikuspenetan, Europako ekonomiak uzkurtzeko eta gelditzeko agertu duen joera sakondu egin dela ikusi dugu. Horrek, zalantzarik gabe, Gipuzkoako enpresen eta ekono-

## • Las empresas guipuzcoanas ante el estancamiento y la contracción de la economía europea

En los apartados anteriores se han reflejado las expectativas para los próximos trimestres de profundización en el estancamiento y la contracción de la economía europea, lo que indudablemente afectaría a la evolución de las empresas y

miaren bilakaeran izango luke eragina.

Oro har, hainbat faktoreri esker, Gipuzkoako ekonomiak eta enpresek etapa horri inguruko beste ekonomia batzuek baino baldintza hobeetan aurre egingo diela esan dezakegu. Horrez gain, aurreko mendeko azken hiru hamarkaden hasieran izandako aurreko mantsotze aldietan baino hornikuntza hobea dute.

Aldeko faktore horien artean, aipatu beharrekoa da industria jardueraren gailentasuna; izan ere, inguruko beste ekonomia batzuek baino nabarmen handiagoa den indarra du industriak BPGan. Gipuzkoako industria sektoreak, enpresa ertainek eta txikiek osatutako egitura oinarria duenak, azken hamarkadan nazioarteko koiunturara egokitzeko gaitasuna eta lehiarako ahalmena agertu ditu lurraldeko guztizko produkziora egindako ekarpena mantenduz.

Horrez gain, atzerriko merkatuetan duen presentzia handitu egin da; presentzia hori batez ere Europar Batasuneko herrialde handietan areagotu da produkzio inbertsioa oinarri duen lehia mailako ahalmenarekin, kudeaketan izandako hobekuntzarekin, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak barneratzearekin eta berrikuntzarekin lotuta.

Horri guztiari esker (horri, gainera, sektore publikoaren egoera mesedegarria eta jarduteko gaitasuna batu behar diogu), Gipuzkoa iazko azken zatian hasi zen nazioarteko geldialdi ekonomikoari baldintza onetan aurre egiteko moduan dagoela esan dezakegu.

de la economía guipuzcoana.

Puede afirmarse, con carácter general, que la economía y las empresas guipuzcoanas afrontan esta nueva etapa en mejores condiciones que las economías de su entorno, como consecuencia de la confluencia de diversos factores, así como mejor pertrechadas que en los anteriores periodos de ralentización a inicios de las tres últimas décadas del siglo pasado.

Entre estos factores favorables puede mencionarse la relevancia de la actividad industrial, con un peso en el PIB sensiblemente superior al de las economías del entorno. El sector industrial guipuzcoano, sustentado en un tejido de medianas y pequeñas empresas, ha mostrado a lo largo de la última década su capacidad competitiva y capacidad de adaptación a la coyuntura internacional, manteniendo su aportación a la producción total del Territorio.

Y, junto a ello, ha incrementado su presencia en los mercados exteriores, principalmente en los grandes países de la Unión Europea, asociada a su capacidad competitiva sustentada en la inversión productiva, en la mejora de la gestión y en la innovación e incorporación de las tecnologías de la información y de la comunicación.

Todo ello, junto con la favorable situación y capacidad de actuación del sector público permiten afrontar en adecuadas condiciones el periodo de estancamiento económico internacional iniciado en la última parte del pasado año.

**Gipuzkoa eta Europar Batasuna**
**Gipuzkoa y la Unión Europea**

| | **Industria/BPG (%)**<br>***Industria/PIB (%)*** | **Ondasunen esportazioa/BPG (%)**<br>***Exportaciones de bienes /PIB (%)*** |
|---|---|---|
| EB-27/*UE-27* | 20,2 | 10,1* |
| - Alemania/*Alemania* | 25,4 | 38,8 |
| - Erresuma Batua/ *Reino Unido* | 17,5 | 18,8 |
| - Frantzia/*Francia* | 14,4 | 21,5 |
| - Italia/*Italia* | 20,5 | 22,5 |
| - Espainia/ *España* | 18,2 | 17,5 |
| Gipuzkoa/*Gipuzkoa* | 30,1 | 29,0 |

* EB-27 zabalduta: faltan diren datuak kide diren beste herrialdeei dagokien esportazioak kontuan hartzen dute.
Gipuzkoako esportazioek Espainia Estatuari dagozkien salmentak ez dituzte kontuan hartzen.
Iturria: Eurostat (200ko datuak), Eustat (2008ko datuak) eta bertan eginda.

** Extra UE-27. Los restantes datos incluyen las exportaciones a los restantes Estados miembro. Las exportaciones de Gipuzkoa no incluyen las ventas al resto del Estado Español.*
*Fuente: Eurostat (datos de 2006), Eustat (datos de 2007) y elaboración propia.*